



Makulu Ken taldeak Abend-en eta Desperviciok Sustrai-n eskaini zituzten emanaldietako irudiak. Bakoitzak bere aretoan giro bikaina jarri zuten.

Musika eskaintza oparoa

Lasarte-Oriak astebururo erakusten du batetik hainbat musika sortzaile dela herrian eta bestetik zenbait tokitan eskaintzen dela jotzeko aukera

Astero astero hutsik egin gabe antolatzen da kontzerturen bat Lasarte-Orian. Aste honetan Jalgin ez da kontzerturik izan, baina bai Arkaitz Mendozaren piano emanaldia Kultur Etxean ostiral iluntzean, Makulu Ken herriko taldea eta DJ Grassman-ena Abend-en ostiral gauean, Despervicio eta Detritos taldeena Sustrai tabernan larunbat arratsaldean. •

Hurrengo
TXINTXARRI
aldizkariko
zenbakia
apirilaren 17an
argitaratuko da



Ikusle oso gutxi izan ziren Arkaitz Mendoza Andoango piano joleak Kultur Etxean ostiralean eman zuen kontzertuan.

ALBISTEA ■ 4

Teresategin industrialdea jartzeko bigarren azterketa baten berri eman du ezker abertzaleak

KULTURA ■ 5

Iparraldeko Donaixti herriko eta Landaberriko ikasleen arteko astebeteko trukea

· MATERIAL ELEKTRIKOAK
· ARGIAK



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

· ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
· TB/HI-FI
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

YOLANDA TABERNA



- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hanburgesak
- Pizzak
-

ETORRI DASTATZERA !!

Pintore Kalea 1 • Tel.: 695 501890

Herriko areto futbolak lehenengo fasea bukatu du asteburu honetan

■ Maiatzaren 23an jokatu dira Ostadar K. F.ak antolatutako txapelketa herrikoieko finalak

TXINTXARRI

Ostadar K.F. antolatzen duen XXVI. Areto-futbol txapelketa hurrengo fasean sartuko da aurki, apirilak 18an, hain zuzen ere.

Asteburu honetan lehenengo faseko azken jardunaldia jokatu da eta honen baloraketa egiteko Imanol Azkue txapelketako arduradunetako batekin hitz egin dugu.

“Oso ona da antolatzaileek egiten dugun baloraketa. Taldeak ongi portatu dira eta iaz baino zigor gutxiago ezarri ditugu,” azpimarratu du.

“Egia da talde guztiek ez dituztela mahai edo epaile lanak egin, baina ez da arazorik sortu horregatik. Urtero daude horrelako gauzak,” azaldu digu Azkuek.

Honetaz gain, urriaren 22 talde hasi eta lehenengo fase honetan batek, Oria txiki tabernak, uztea erabaki zuela ere azaldu digu, “bi zigor ezarri genizkion taldeari, gainera partidetak jokalarri kopuru murrizta agertzen zen eta haiek hartutako erabakia izan zen. Eta horren ondorioz, azken jardunaldietan txapelketetako talde batzuk atsedena izan dute.”

Play-off, ligaxka eta kontsolazioa

Hemendik aurrera, sailkapenaren arabera egun dauden 21 taldeak hiru ligatan banatuko dira, play-offa, ligila eta kontsolazio liga.

Ligaxkako sailkapeneko lehenengo 8 taldeek play-offean parte hartuko dute. Final laurdenak eta finalaurrekoak joan etorrian jokatu dira eta maiatzaren 23an, finala jokatu da.

“Azken jardunaldiko partidak play-offa jokatu duten taldeen gurutzaketak erabakiko dituzte,” adierazi digu Imanolek. “Gainera betiko taldeak sailkatu dira, ez da sorpresarik egon,” atxiki du.

Bestalde ligila dago. Hontan, 9. taldetik 16.era egongo dira lehiari eta hauek ere final laurdenak, finalaurreak eta finala jokatu dituzte, baina partidak batetara.

Azkenik, kontsolazioa dago. azken bost taldeek liga modura jokatu dute etabi lehenek finala jokatu dute.

Imanolek azaldu digunez, play-offeko partidak kiroldegian jokatu dira eta ligila eta kontsolazioa, berriz, kirol gunean.

Animo talde guztiei eta sortze on. •



Urriaren hasi zen herriko areto futbol txapelketa azken faseetara iritsi da.

Hiru lehiaketa jokatu dira maiatzaren 23ra arte, play offak, ligila eta kontsolazioa. Eta lehenengo faseko sailkapenaren arabera taldeak honela banatu dira:

PLAY-OFF

**ISU Leihoak
Izkiña
Buenetxea
Ainhoa taberna
Jordi Sonido
Lurra XXI
Biyona
Izarra Bitxitegia**

LIGAXKA

**Pub Katanga
Epel taberna
Mayi kafetegia
Viñadel Mar
IOB H.K.
Tragoxka
Okela Harategia
Ilargi**

KONTSOLAZIOA

**Danena
Morrison
Obelix
Siglo XX
Oria kristaldegia**

Kirolerako oharrak

**Kirol guneen egutegia
Aste Santuan**

Lasarte-Oriako Kirol Zerbiztuak jakin arazten du, Aste Santua dela eta, Mitxelingo kirolgunea itxita egongo dela apirilaren 9tik 13ra, biak barne. Udal kiroldegiak, ordea, atek zabalduko ditu egunero 9:00etatik 13:00etara.



Kirol emaitzak

Futbola

Ostadar-Hondarribia (Emakumezkoen liga, kopa) 3-3
Ostadar-Beasain (Infantilen ohorezko maila, kopa) 8-0

Areto-Futbola

Herriko txapelketa

Buenetxea-IOB H.K. 4-1
Jordi-Morrison 6-2
Epel-Lurra XXI 4-6
Vina del Mar-Okela 5-1
Biyona-Ilargi 7-1
Siglo XX-Obelix 3-5
Danena-Izkiña 0-7
Oria Krist.-Ainhoa 0-28
ISU Leihoak-Mayi 6-2
Katanga-Tragoxka 4-3

Maialen Chourraut eta Iñaki Elizalde Kursaaletan omenduak



Maialen Chourraut-en denboraldi bikaina saritu du Foru Aldundiak.

Urtero legez, Gipuzkoako Foru aldundiak 2008an Espainiako txapelkun edo nazioarteko mailan lehiatu diren 130 kirolari eta 17 kirol taldeei omenaldia egin zien asteartean Donostiako Kursaal aretoan. Eta, horien artean, Maialen Chourraut eta Iñaki Elizalde lasarteoriarrak egon ziren.

Bakarka eta taldean

Maialen bakarkako nazioarteko mailan lehiatzen da sarritan eta 2008an, gainera, Beijingeko Joko Olinpikoetan egon zen. Iñaki Elizalde, berriz, taldean eskuratu du ohorea. Izan ere, Ama Guadalupeko taldeko partaide bezala, talde mailan jubentzen mailako Espainiako txapelketa eskuratu baitzuen Madrilan. •

Kukua entzun zuten Oinaztarrek Usategietan

■ Bortzirietatik etxera gauza mordoia ikasita bueltatu ziren Oinatzekoak

Oinatz taldearen azken irteera borobil atera zen. Aurrez pentsatuta bezala martxoak 30 igandean goizeko 9:00tan zintzo atera ziren Bortzirietara.

Usategieta gaina lainoak hartua zegoen baina pixkanaka-pixkanaka eguzkiak borroka irabazi eta zerua erabat urdindu eta Sara alde ikusten utzi zien.

Usategietako ehiza teknikak zertan diren bertan argitu eta mendi bueltaxka egiten ari zirela jabetu ziren udaberria ate joka dagoela. Hala esan zien behin eta berriz entzun zuten kukuak.

Kukuaren kantua entzuten eta patrikak diruz josiak zituztenez, urte guztirako dirua ziurtatua daukate Oinatzeko kideek. Eta horrek bizi den krisi garai honetan lasaitasuna eman zien.

Kukuaren usadioa gogoratu eta batak bestea dakarrenez, zozomikoteen elezaharra ere berri zuten gain hartan txorixo muturra jan aurretik.

Ondoren, Etxalarko herriari buelta bat eman zioten. Kalez kale bertako eraikuntza nagusiak ikusi zituzten, hala nola, Jasokunde eliza eta hila-rri guztiak, Udaletxea, kultur etxea edo pilotalekua. Garai



Egunpasa ederraz gozatzeko aukera izan zuten irteerara animatu zirenak.

Arg.: Josu Agirretxe

bateko Etxalar gogora ekarri zuten mehako herri hau historian zehar nola bizi izan den azalduaz.

San Juan Xar

Bertan bazkaldu eta ondoren San Juan Xarrera joan ziren. Arantzako bidean dagoen haitzulo eta iturri honetan sinesmenak diogen bezala zapi bat iturriko uretan busti eta azalduko eta urdaileko gaitzak sendatzeko egin behar den errituala egin zuten Oinatzeko-

koek, baita bertan dagoen San Joan irudi ezohizkoa ikusi ere.

Autoak hartu eta Lesakarrantz egin zuten gero. Han bertako udalak jarrita duen gida turistikoarekin hitzordua egin zuten taldeak eta hantxe zegoen Belen zintzo demonio.

Kideek azaldu digutenez, sarritan izanak ziren taldeko gehienak Lesakan baina zuku ederra atera zioten bisitari. Eraikuntza dotoreak jauregi

moduko etxeak, historiari buruzko erreferentziak, eliza, ibaiak, eta ibai gaineko zubiak, dantza ezagunari erreferentziak, hau guztia, era paregabean azaldu zizkien Lesakako gidak. Honetaz gain, azoka zegoela baliatuz erosketak egiteko aukera ere izan zuten taldeko kideek.

Egun pasa bikaina egin zutela adierazi digute Oinatz taldekoek. Eta etxera gauza mordoia ikasita etorri ziren gainera.

HITZALDIAK

Nola hezi gure seme-alabak

Seme-alaben hezkuntza eta haien hazkuntza fisikoa, nahiz emozionala dira gurasoen lehenetako bat.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitate, Kontsumoko, Merkataritzako eta Ingurumeneko Departamentuak aurreko urteetan bezala, 7 urte arteko haurren gurasoei eta hezitzaileei zuzenduriko ziklo berri bat antolatu du.

Ziklo honek gida moduan balio izan dezake haur txikiak hezteko edo haien hezkuntza prestatzeko bidean dauden guztientzat.

Era honetara, hilaren 22an izango da lehenengo hitzaldia *Haur tiranoak*. Mitotik harago, maiatzaren 19an *Amagandik edoskitzea, janaria baino askoz gehiago*, ekainaren 4ean *Haurrak: beren buruekiko segurtasuna indartzeko giltzarriak*, ekainaren 16an. *Besoko umeentzat eta haurrentzat mugimenduak duen garrantzia*, irailaren 16an *Seme-alabek gezurra zergatik esaten digute*, urriaren 15ean *Gurasoak separatzen direnean*, azaroaren 18an *Gizakien arteko erlazioa*. eta abenduaren 16an *Zigortzea beharrezkoa al da hezteko?*

Ohi bezala, hitzaldiek Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango dute leku eta, orduari dagokionez, arratsaldeko 18:00etan izango dira. •



Irudian Xumela abesbatza Segurara joan zen egunean.

Xumela korua Donibane Lohitzuneko Kantu egunean

Apirilaren 19an, Xumela korua Donibane Lohitzunera doa, bertan ospatzen den *Kantu egunean* parte hartzeko. Goizeko 10:30ean Hipodromotik abiatuko den autobusak Donibane Lohitzunera eramango ditu koruko

kideak, baita parte hartu nahi duten herritarrek ere. Izan ere, edonork parte hartu baitezake *Kantu Egunean*.

Behin Donibanera iritsi eta kalejira egingo da bazkalordura arte. Arratsaldean, berriz, talde guztiek eta herritarrek

batera sei kantu abestuko dituzte eta Mutxiko taldearen emanaldia egongo da.

Kantu Egunean parte hartu nahi duenak Ttakuneko bulegoan eman behar du izena. Guztira 42 euro dira, autobusa eta bazkaria ordaintzeko. •



Kandido Urangaren emanaldia Jalgin.- Ikusleen interesari eustea lortu zuen Kandido Uranga aktoreak berak bakarrik ostial gauean Jalgin eskaini zuen emanaldian. 40 minututan isiltasun osoa mantendu zen ikusleen artean. Hiru parte izan ziren, "orain txakurrek haginka egingo didate" liburuko pasarte batzuk irakurri zituen, eta gero txakurrei beldurra dioten bi anaien elkarrizketa jarraitu zen, batetik antzezua eta bestetik bideo baten bidez.

Teresategin industrialdea jartzeko bigarren azterketaren berri eman du ezker abertzaleak

■ Komunikabideei, Teresategiko bizilagunei, auzo elkarteei eta talde ekologistei erakutsi diete txostena eta euren kezka azaldu. ■ Bideragarritasun azterketaren arabera, 106.275.600 euroko aurrekontua izango du eta 850.000 metro kubiko lur baino gehiago mugituko dira.

Ezker abertzaleko zinegotziek Teresategiko industrialdeari buruzko bigarren bideragarritasun azterketaren berri eman dute: azterketa hori zuzenean kaltetuen, auzo elkarten eta oro har herritarren eskura jarri dute. Lehenengoarekin alderatuz, azterketa berri honek, ondorioetan Teresategi hegoaldeko industrialdearen egitasmoa ekonomikoki bideragarria dela dio. Zinegotziek aurreko asteko udal batzarrean Ana Urchueguia alkateari galdera zuzena egin zioten nekazal guneetan proiekturen bat ba ote den jakin nahirik. Alkateak arau orokorrak ez direla aldatuko eta nekazal lurak ez direla ikutuko erantzun zuen. Hala ere, zinegotziak zein ostiralean bildu zirenak ez dira fio.

Jon ALTUNA

Kultur Etxean bildu ziren ostiral arratsaldean Txanpi Baztarrিকা, Itziar lartza eta Joxe Goikoetxea ezker abertzaleko zinegotziak herriko auzo elkarteetako ordezkariekin, Teresategi inguruko hiru bizilagunekin eta Lasarte-Oria Bizirik zein Teresategi salba dezagun plataformetako kide batzuekin, Teresategiko industrialdeari buruzko txostena erakusteko. Zinegotziek industrialdea jartzeko azterketa eta egitasmo berriaren planoak erakutsi zizkieten bildutakoiei.

Azterketaren berri izan ondoren, publiko egitea eta herritarrekin partekatzea erabaki dute, euren kezka adieraziz. Joxe Goikoetxeak adierazi zuenez, proiektu hau gauzatzeko baldin badute, Lasarte-Oriako nekazal edo mendiri lur guztiak desagertuko dira. Aipagarria da Lasarte-Oriako Udalak industrialde bat eraikitzeko asmoa behin eta berriro landu duela eta Teresategiko lurren erdia baino gehiago erosit

dituela. Dena den, Teresategin industrialdea jartzeko derrigorrezkoa izango da arau orokorrak aldatzea.

Bertako bizilagunek eta herritarrek ere euren kezka adierazi zuten bileran. Kaltetu batek adierazi zuen Teresategin industrialdea jartzeko bigarren egitasmo hau, lehenengoa baino suabeagoa dela, baina hala ere onartezina.

Duela urte batzuk atzera bota zen lehen proiektuak Teresategiko gaina kendu eta espazio guztia industria eremurako erabiltzea proposatzen zuen. Oraingoan, muinoa mantendu egingo da baina industrialdeak inguratu egingo du. Lasarte-Oria Bizirik taldeko kide batek adierazi zuenez, hau egiten bada, Teresategi irla bat izango da eta txoriak izan ezik ez da mendiko beste animaliarik ere izango isolatuta geratuko delako.

Bideragarritasun txostena

Teresategin industrialdea jartzeko bigarren azterketa hau 2008. urtekoa da eta hainbat



Ostiraleko bileran hainbat herritarrek Teresategiri buruzko bigarren txostenaren berri izan zuten.

arlo jorratzen ditu. Bileran batzuk aipatu ziren, esaterako balio edota gastua, 106 milioi eurotik gorakoa dela eta lur mugimenduak, guztira 851.955 metro kubiko, horietatik ia heren bat harkaitza. Bideragarritasun txostenean adierazten denez, aurrekoan baino gutxiago dira. Industrialdea eraikitzeko aurrekontua, 61.482.930 eurokoa da txostean arabera, azpiegitura eta urbanizatze lanena, 30.978.428 eurokoa eta lur-sailen erosketarena 13.814.235 eurokoa, guztira 106 milioi euro baino gehiago.

Finantzatze kostu handia zela eta bota zen atzera lehenengo egitasmoa, batez ere, eremuak zati batean har-

kaitza duelako eta bestetik eraikitzen ari diren Donostia-ko bigarren saihesbidearen azpitik Lore Tokira irteera egiteko proiektuak garestitu egiten zuelako.

Mendia, parke berde

Ondorio hauek ikusita enkargatu zen bigarren azterketak badu berrikuntzaren bat. Teresategiko pinuak eta gaina bere horretan geratuko dira: 35.000 metro karratuko zati hori parke berde gisa definitzen dute eta inguratuta egongo da, mendealdetik autobide berria izango du eta beste hiru aldetatik industrialdea.

Industrialdetik, loturak egingo dira Goiegi eta Zaba-

leta aldera. Hain justu bi auzo hauetan egingo diren etxebizitza multzo berriekin lotuko da industrialdea, Zabaleta Berriko eta Goiegi Ibarreko etxeekin. Goiegi goian eraikiko den Hotelera bide bat ere egiteko asmoa dago, beti ere azterketaren arabera.

Industrialdea sei zatitan banatuta jartzen dute bakoitza bere sarrera eta aparkalekuekin. Txikiena, 5.425 metro karratuko da eta handiena 11.940koa. Guztira 54.465 metro karratu izango ditu industrialdeak aurreikuspenen arabera. Horietatik parte batean industria enpresak jarriko lirake eta beste batean bulegoak. •



ANAIK

JANTZI-DENDA

Udaberria hemen dago !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 362386



Denetarik egin dute Landaberriko eta Donaixtikoko ikastetxeeko neska mutilek. Bost egun pasa dituzte elkarrekin martxoaren

Donaixtikoko ikasleekin aste beteko trukea

- Nafarroako Beheko herriko ikastetxearekin senideturik da Lasarte-Oriako Landaberri.
- Hiru egunez iparraldean izan ziren herriko gaztetxoak eta gero haien bisita jaso zuten.

Lasarte-Oriako Landaberri Institutua Donaixtikoko Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioarekin senideturik da eta bien arteko hartuemanak aste honetan izan du gailurra. Martxoaren 30etik apirilaren 4a bitartean ikasleen arteko trukea egin dute bi ikastetxeek. Astelehenetik asteazkenera Donaixtin izan dira lasarte-oriarrak eta asteazkenetik ostiralera donaixtiarren bisita jaso dute. Dударik gabe, bost egun hauetan harreman estua izan dute bi taldeek eta ostiralean penaz egin zioten elkarri agurra.

Lasarte-Oriako hogeit hamar lagun abiatu ziren martxoaren 30ean Larzabalera. Han ibilaldia egin zuten, herrira oinez jaitsi ziren eta bertan bazkaldu zuten. Arratsaldean arditegira eta gaznategira joan ziren bisita bat egin eta gazta egiten aritu ziren

ze herrira joan ziren zaldi gainean ibiltzera. Handik Donibane-Garazira, bertan bazkaldu eta ondoren pista jokoan jardun zuten herria ezagutzeko asmoz.

Asteazkenean, Lasarte-Oriara bueltatu ziren Donaixtikoko 16 lagunekin batera. Eguerdian Zubietan izan



Donaixtikoko ikasle bat Korrikan, Landaberriko Gurasoen kilometroa osatzen.

ziren, Xirimiri elkartearen bazkatzu zuten zuten eta ondoren Landaberri institutuaren aurkezpena izan zen.

Ostegunean Donostiara joan ziren eta Aquariuma ezagutzeko aukera izan zuten bisita gidatu baten laguntzaz.

Xirimiri bazkaldu ostean eta Korrika herritik igarotzen zela kontutan hartuta, Donaixtikoko Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko ikasle batek eraman zuten Landaberriko Guraso Elkartearen lekukoa Landaberri ikastolako ikasle batekin batera.

Azken egunean, ostiralean, Ttakunek antolatuta pista jolas bat egin zuten herrian zehar. Bi taldeetan banatu ziren eta institutu ondoko zubitik hasita Lasarte-Oriako zokoak ikusi zituzten.

Trukea amaituta, egun horietan egin dituzten harreman berri horri jarraipena ematea gustatuko litzaiokeela esan digu iparraldeko ikasle batek, "bikain pasa dugu, hemen egun gehiago egon nahiko genuke".

M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Ur eteteak eta hausturak jasan dira egunotan

TXINTXARRI

Martxoaren 27an, ostirala arratsaldean, ia sei mila lasarteoriatar geratu ziren urrik gabe Donostiako 2. ingurubideko lanen ondorioz Belartzako ur-biltegitik herriko hainbat auzoetara doan ur hodian haustura bat izan zelako.

Egunean berean, konpondu baten ere, honekin bost dira ingurubideko lanak hasi zirenetik hausturagatik sortu diren ur eteteak eta Lasarte-Oriako ur hodiaren kasuan, bitan gertatu da, uztailen lehenengoa eta martxoaren 27koa bigarrena.

Gainera, hautsitako ur hodia ezarri zenetik ez da urte bete igaro. Orduan, biga-

rrin ingurubideko proiektua prest zegoen eta arazoak egon ez zitezen ur hodia sakonago lurperatu zutela adierazi du Añarbeko Ur Mankomunitateak.

Gauzak honela lanek jarraitzen duten bitartean herritarrei zerbitzu duina emateko ahalegin guztiak egingo dituela jakinarazi du Mankomunitateak.

Ur etetea

Horregatik, lehengo astean oharrak ezarri zituzten etxebizitzetan ostegunean edateko ura moztu egingo zela jakinarazteko. Honela, ostegunean udalerraren eremu handi batean ur gabe egon ziren gaueko 22:00etatik ostiraleko 7:00etara. •

Munduen zaintzaileak ezagutu zituzten Udal Euskaltegiko ikasleek

TXINTXARRI

Ander Izagirre kazetariak aurkeztu zizkien Udal Euskaltegiko ikasleei astelehenean Villa Mirentxun egin zituen goizeko eta arratsaldeko saioetan.

Munduen zaintzaileak diaporama Ander Izagirrek argitaratu duen liburu batean oinarritzen da. Bertan, Euskal Herriko bazter kutun batzuk babesten dituzten herritar anonioak ezagutu ahal dira.

Honela, Anderren solasaldiak herritar eta zoko horien istorioetan sakon murgildu zituen ikasleak.

Honela, hala nola, Leitzaranekeo haraneko eraikuntza hondakin guztiak aztertu dituen ingenieroa, testuak aztertu eta bere herrialdean traktorea eta



Udal Euskaltegiko ikasleek adi entzun zituzten munduen zaintzaileen istorioak.

aitzurrarekin aztarnak aurkitzen dituen gizona edo koman egon ondoren, zuhaitz sustraiak bildu eta artelanak egiten dituen bizkaitarra ezagutu zituzten.

Euskaltegiko ikasleak adi entzun zituzten istorio guztiak eta algara batzuk ere bota zituzten pertsonaien xebebrekeriak entzutean. •

Rol-jokoak eta ligatzeko teknikak, gazte ikastaro berriak

2009ko bigarren hiruhilabete-ko gazte ikastaroak aurkeztu ditu Gazteria sailak. Breakdance, sendabelarrak, malabareak, batuka, sabel-dantza, roleko jokoak, ligatzen ikaste-ko teknikak, grafologia, era eta gustu desberdinetako ikastaroak beraz.

Jesus Maria Zaballos saileko buruak aipatu duenez, antolatu dituzten ikastaro berriekin eskaintza gazteago bat egiten saiatu dira.

Apiriletik ekainerako iraupena izango dute eta astean behin emango dira kultur etxean, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 19:00etatik 21:30era.

Harrera ezin hobea

Gazteria eta Festak saileko ikastaroen eskaintzari ongi erantzun diote gazteek eta honen erakusle aurreko lau txandetan ibili diren 250 ikasleak dira.

Eta, igorri dituzten datuen arabera, dantzarekin zer ikusia duten ikastaroak, hau da,



sabel dantza eta batuka dira arrakasta handien duten ikastaroak. Oraingoan eskaintza ugaritu dute eta ikasle zenbakia handitzea espero dute.

Prezioa eta izen ematea

Gazte ikastaroetan matrikulatzeko epea dagoeneko irekia dago. Honela, ikastaro bakoitzaren prezioa 20 eurotako da Lasarte-Oriako erroldatuak dauden gazteentzat eta 35

eurotako erroldatu gabeentzat.

Ez ahaztu Lasarte-Oriako gazte txartela dutenek %10eko beherapena izango dutela.

Beraz, interesa dutenek apirilaren 15a arte dute gazteentzako informazio bulego- ra hurbildu eta izena emateko.

Kurtsoak apirilaren 20ka astean hasiko dira. •

Zuhaitzen txorkoen estalki berria

Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzuetako saila zuhaitzen txorkoetako estalkia aldatzen ari da, guztira 1.500 inguru udalerrira osoan.

Neurri honen helburua sistema hobea bat ezartzea da bai oinezkoentzako, baita zuhaitzentzako ere.

Aurreko sistemak, hau da, txorkoa estaltzeko saretek arazoak sortzen zituzten. Zuhaitza haztean sareta altxatu eta oinezkoentzat arrisku-

tsuak ziren, horregatik bilatu da sistema berri hau.

Estaldura berriak harria eta goma konbinatzen ditu. Modu horretan, enborra hazten doan heinean ez da lekuerik gabe geratzen, gomak eman egiten baitu. Campezo Construcción S.A. arduratuko da lan hauetaz: hiru hilabete-tan zehar Lasarte-Oriako zuhaitz guztiei sistema berria ezarriko die, beti ere, eguraldiaren egoeraren arabera. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketak

KORRIKA 16ak herrian utzitako irudiekin argazki erakusketak egingo da apirilaren 15a bitartean. Jalgin, egun osoan.



Ostirala, 17

Kontzertua

KUL taldearen kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 18


Kontzertua

MAKULU KEN taldeak kontzertua eskainiko du XI. Jardunaldi Internazionalisten barruan. Jalgin, 22:30etan.

Igandea, 19

Zinea

BARRIOLA, SAN ADRIANGO AZERIA filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30etan.



Ikuslearen jateko gogoia piztuko duen filma ostegunean

ESTOMAGO filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak. Filma brasildar honetan Raimundo Nonato hirira iristen da bazkaltzeko eta afaltzeko aukera emango dion bizimodu baten bila. Taberna batean aurkituko du lana eta ustekabeen sukaldarako duen gaitasunaz jabetuko da. Giovannik, jateixe ospetsu bateko nagusiak kontratatuko du Raimundo eta honekn bitizta erabat aldatuko da.

OSTEGUNA 16
KULTURETXEAN
21:30EAN, SARRERA 4,15 EURO

Osteguna, 23

Zinea

CHE: EL ARGENTINO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30etan.

Ostirala, 24

Proiektzioa

Takun K.E.k herriaren laguntza antolatutako 7. EUSKARAREN MARATOIKO BIDEAREN EMANALDIA eskainiko da.

Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Jam sesioa

Jalgiko JAM SESIOEN XX. SASIOA ospatzeko soul eta jazz entzun ahaliko da V.O.S. 4tet talde gonbidatuaren eskutik. Animatu parte hartzera. Jalgi kafe-antzekian, 22:30etan.

Larunbata, 25

Antzerkia

MUNSTROAK AKATU antzezlan eskainiko da haurrentzat. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan.



Igandea, 26

Zinea

EL VALIENTE DESPERAUX filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30etan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik
13:00etara eta 17:00etatik
21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Aste Santuko Lasarte-Oriako elizkizunak

Ostegun Santua, apirilak 9

11:00etan Aranzazuko elizan konfesioa **ELEBIETARA**
17:30ean Brigiten kaperan Meza Santua **ELEBIETARA**
19:00etan Arantzazuko elizan Meza Santua **EUSKARAZ**
19:00etan San Pedro elizan Meza Santua **GAZTELERAZ**
22:00etan Brigiten kaperan Ordu santua **ELEBIETARA**

Ostiral Santua, apirilak 10

8:00etan San Pedroko eliztarrek Gurutze bidea egingo dute Kalbario bidean
10:00etan Arantzazuko elizakoek Gurutze bidea egingo dute Azkorteran
11:00etan Brigiten kaperan Gurutze bidea egingo da
16:30ean Brigiten kaperan Pasioa antzeztuko da **ELEBIETARA**
18:00etan San Pedro elizan Pasioa antzeztuko da **EUSKARAZ**
18:00etan Arantzazuko elizan Pasioa antzeztuko da **GAZTELERAZ**

Larunbata Santua, apirilak 11

19:30ean Brigiten kaperan Bazko gaubela egingo da **ELEBIETARA**
21:30ean San Pedro elizan Bazko gaubela egingo da **ELEBIETARA**

Oharrak

Korrikako arropa salgai euskaltegian

Korrika 16ko materiala salgai dago dagoeneko Muntteri-AEK euskaltegian eta Urruzola mertzerian.

Begirale izateko Ttakunen eskaintza

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

Galdutako txaketa

Martxoak 20ean marrazki beltzdun txaketa gris bat

galdu nuen Beko Errota edo Kale Nagusia inguruan. Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke.

Harremanetarako zenbakiak, 620 071 384 eta 943 370 438 (Maite)

Marrazki eta pintura ikastaroak

Lasarte-Oria Bizilagun elkarteak jakin arazten du, apirilaren 10 eta 11ean ez dela pintura eta marrazki klaserik egongo Manuel Lekuona Kultur etxea itxia dago eta.

Sorosle eta lehen Sorospenen ikastaroa

DYA Gipuzkoak antolatuta datorren apirilaren 27an Lehen Sorospen eta sorosle ikastaro berri bati hasiera

emango zaio Usurbilen.

Hiru aste iraungo du ikastaroak eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da astelehenetik ostiralera Parrokiko lokaletan (Kale Nagusia 25). Ikastaroa gainditzeko duenak, EHUrako 2 kreditu jasotzeko aukera izango du. Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 90 eurokoa da.

Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izen emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefonora.

Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak

doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemate goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauetaz guztietatik probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzera animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbizi antzemateko eta prebenitzeko.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Beñat Arroyo, Intza Alkain, Aitziber Garmendia eta Egoitz Lasa aktoreak lanean. Atzean Andoni Egaña, Xabi Paya, Ane Labaka eta Andon i Otamendi. Egañak karikatura egin zion Evaristo Pikabeari.

- Ikusleen txalo "batukada" beroa jaso zuen Mundua Konpontzeko Tailerra ikuskizun ederrak
- Aktoreak bat-batean gai baten inguruan aritu ziren eta bertsolariek "antzerkia" egin zuten
- 200 lagunek gozatu eta parte hartu zuten Ttakun eta Bertso Eskolaren proposamenean

Fabrika bete elkarlan

JON ALTUNA

Herriko sortzaileak atera ziren Lekuona Tailerreko oholtzara, lau bertsolari eta beste lau aktore-ri Mundua Konpontzeko Tailerrean lanerako gaia jartzeko. Hasteko bi musikarik blues-a jo eta bertsolariek beraiekin kantatu zuten. Aktoreak, aldiz, festetako blusa eta jotzeko gogoarekin atera ziren. Edo Pilar Katalina sopranoak Maritxu Nora Zoaz kantatu, eta bertsolari zein aktoreak Maritxu-Bartolo bihurtu ziren, euren arteko harremanak kontatzeko.

Umorea hasiera-hasieratik egon zen presente larunbat arratsaldean Kultur Etxean burutu zen ikuskizunean. Janzteia izan zen-Mailu Arruti eta Enara Iregirik, aurkezle eta Tailerreko arduradunek, emandako lehen lana edo "enkargua" bertsolari zein aktoreei. Eta hor hasi ziren komeriak eta ikusleen barre algarak. Buzoak txikitxo zituzten edo alderantziz jantzi zituzten. Munduan gauza asko aldatzeko dauden seinale. Bertsolariek hiru buzo eta amantala jantzi zituzten, hain juxtu: Andoni Egaña, Andoni Otamendi eta Xabier Payak buzoa; eta Ane Labakak amantala. Lau bertsolari hauekin batera, Egoitz Lasa, Aitziber Garmendia, Intza Alkain eta Beñat Arroyo aktoreak aritu ziren, azken biak Landaberriko Antzerki taldekoak.

Baina beraiekin batera herriko hainbat "artista" izan ziren

protagonista: lehen gonbidatuak Jon Altuna eta Karlos Aizpurua gitarrajoleak. Agurren ondorengo lehen bertsok Xabier Paya eta Ane Labakak kantatu zituzten musikariekin batera, Bob Marley-ren *No Woman No cry* doinuaren.

Karikatura bertsotan

Ondoren Zarauzko malekoian karikaturak egiten jarri zuten Andoni Egaña, aktoreek seizazpi lagun oholtzan paseatzen jarri eta gero, horien artean Evaristo Pikabea. Egañak honi karikatura egin zion lau bertsotan, kantatu eta segidan eskaintzarekin oparitu. Geroago, Egaña eta Payak ikusleen artean, segidilla doinuarekin egin zuten saioa; Evaristok kantuan erantzun zion Egañari, ikusleen txalo zaparrada beroa jasoz.

Hurrengo saioetan perkusioa nagusitu zen, Tomas Arruti eta Pontxok txalaparta jo zuten, Zarautz soinu-jolearekin batera. Ondoren Batukada taldekoek. Tartean bertsolariek entxufatuei edo tailer kanpoan erretzen duen langileari buruzko saio politikak osatu zituzten, eta aktoreek erretzaileen terapia barre-garria ere bai. Besterik zirudien arren, piromanoak ziren erretze-ari utzi nahi ziotenak.

Publikoak gaia emanda, Egaña eta Paia bertsok bat bi ahotsetara abestu zuten, inprobisatzen dutela egia ala mito den erakusteko; eta ondoren kantatu zuena Pilar Katalina abeslaria izan zen. *Maritxu nora zoaz*

eskaini eta herriko bertsolariak zein lau aktoreak Maritxu eta Bartoloren paperean aritu ziren. Azkenean, ikusle guztiak ere bai, gizonezkoek Bartolorenak abestu baitzituzten eta emakumezkoek Maritxurenak.

Azken gaia futbola izan zen, Egaña, Labaka eta aktoreentzat: "alabak futbolari izan nahi du". Aurretik Ostadar taldeko Lara Torinos eta Iraia Iparragirre futbolariak baloia "toke" batzuk ematen hasi eta Egañak egin zuen erakustaldirik txalotuena. Bertsotan Egaña gehiena kezkatzen zuena, alaba gaztetxoa "toketik toke" ibiliko dela.

Hamar minutu segidan

Jende artera jaitsi eta segidillarekin Egaña eta Payak egindako saio eta azken agurrekin amaitu zen ikuskizuna. Segidillan, isildu gabe, hamar minutuko saioa osatu zuten, bukaeran ikusleen txalo "batukadaren" laguntzaz.

Ttakun eta bertso eskolak aurreratu dute saio berezia urteroko zita bihurtu nahi dutela. Iazko Barrenak astinduz eta aurretiko Mundua Konpontzeko Tailerra proposamenean herriko kultur taldeen eta ikusleen parte hartzea zuten helburu, eta zalan-tzarik gabe ekimen arrakastatsua izan dira. Baina hurrengo urteko zitaren aurretik beste hiru badira: maiatzaren 23an Lasarte Oriá Andoni Egañaren aurka desafioa; ekainaren 29an sanpedrotako saioa; eta urriaren 3an Patxi Etxeberriari omenaldia. •



Egañak baloiarekin duen trebeziak harritu egin zituen Ostadarreko neskak.



Mundua Konpontzeko Tailerrean edozor da posible: bertsok bi ahotsetan.



Evaristo Pikabea Egañari erantzuten. Paya eta biak oholtzatik jaitsi ziren.



Aktoreak bat-batean agertu eta hainbat paperetan aritu ziren.